

ERRENTERIAKO UDALA

***2014KO ABENDUAREN 31KO EGOERA BALANTZEA ETA
DATA HORRETAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI
DAGOKION GALDU IRABAZIEN KONTUA, AZTERKETA
TXOSTEN BEREZIAREKIN BATERA***

AURKIBIDEA

20104KO ABENDUAREN 31KO BALANTZEARI BURUZKO ETA AIPATUTAKO EGUNEAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION GALDU IRABAZIEN KONTUARI BURUZKO AZTERKETA TXOSTEN BEREZIA	2
--	---

1 AZTERTUTAKO ONDARE KONTUAK	6
1.1 Balantzea (ikuskatu gabea)	6
1.2 Errenteriako Udalaren galdu-irabazien kontuak (Ikuskatu gabeak)	7
2 AURKEZTEKO OINARRIAK ETA ARAUDIA	9
2.1.- Sarrera	9
2.2.- Ondorioak	9
3 AZALPEN ATALAK	11
3.1 Finantzaz bestelako ibilgetua	11
3.2 Finantza-ibilgetua	14
3.3 Funts propioak	16
3.4 Jasotako maileguak	18

ERANSKINA:

Ondare-kontuen azterketan aplikatutako prozedurak (Ikuskatu gabeak)	19
--	----

ERREENTERIAKO UDALA

***2014KO ABENDUAREN 31KO EGOERA BALANTZEARI ETA
DATA HORRETAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI
DAGOKIEN GALDU IRABAZIEN KONTUARI BURUZKO
AZTERKETA TXOSTEN BEREZIA***

**2014KO ABENDUAREN 31KO EGOERA BALANTZEARI ETA DATA
HORRETAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKIEN
GALDU IRABAZIEN KONTUARI BURUZKO AZTERKETA TXOSTEN
BEREZIA**

ERRENTERIAKO UDALEKO Kontu-hartzailletza Nagusiari:

I- SARRERA

ERRENTERIAKO UDALAREN 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzea eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontua analizatu ditugu (1. Atala). Ondare-kontu horiek 2014ko ekitaldiari dagokion ERRENTERIAKO UDALAREN kontu orokorra osatzen dute.

Zuzendariari dagokio urteko kontuak formulatzeko erantzukizuna, aplikatu dakioken finantza-informazioaren esparruarekin (2.1. atalean zehazten da) eta, bereziki, kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat etorriz. Haren erantzukizunpekoa da, orobat, urteko kontuak huts materialik gabe prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duen barne-kontrola.

II. LANAREN HELBURUA ETA IRISPENA:

ERRENTERIAKO UDALAREN 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzea eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontua analizatu ditugu (1. Atala eta Eranskina). Ondare-kontu horiek 2014ko ekitaldiari dagokion ERRENTERIAKO UDALAREN kontu orokorra osatzen dute eta erakundeko lehendakariari dagokio horiek formulatzeko erantzukizuna. Azterketa bat erakundeko pertsonalari galderak egitera eta kontabilitate-informazioari buruzko prozedura analitiko jakin batzuk (txosten honen eranskinean zehazten direnak) aplikatzera mugatzen da. Azterketa gisa hedadura murriztua duenez, ikuskaritza bati dagokiona baino askoz ere txikiagoa, ez dugu ematen 2014ko abenduaren 31ko balantzeari buruzko iritzia, ezta aipatutako egunean amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontuari buruzkoa ere (1. atala). Biak lan honetan erantsita daude.

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, alderatzeko asmoz, balantzeari eta galdu-irabazien kontuari dagozkien sailletako bakoitzarekin batera, 2014ko ekitaldiaren emaitzez gain, aurreko ekitaldiari dagozkionak aurkezten dira. 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzea eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontua baino ez ditu aztergai.

III.- ONDORIOAK

Gure azterketaren emaitza gisa, ez dugu 2014ko abenduaren 31ra arteko egoera-balantzean aldaketa garrantzitsurik sartzeko beharra ikusi, ezta aipatutako egunean amaitutako galdu-irabazien kontuan ere (biak 1. atalean erantsita daude), ondorengo paragrafoetan deskribatutako aldaketak salbuesita, kontu horiek indarreko araudian bildutako Kontabilitate Printzipio Publikoen arabera aurkeztuta egon daitezen. Prozedura gehigarriak aplikatu edo kontu-ikuskapen bat egin izan bagenu, beste aldaketa batzuk sartzeko beharra agerian utz genezakeen:

- 2015eko ekainaren 22an egindako 2014ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren *kontu-ikuskapeneko txostenean* deskribatzen diren salbuespenek analizatutako kontu erantsietan dituzten ondorioengatik.
- Udalak ezarritako barne-kontrolako prozeduren ondorioz (finantzaz bestelako ibilgetuaren gehitzei, ateratzei eta amortizaziorako zuzkidurei dagozkien erregistroen egokitzapena bermatzeko asmoz), ezinezkoa da erantsita doan 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzean sartuta dauden ibilgetuaren saldoen eta horien amortizazio metatuaren arrazoizkotasuna egiaztatzea (3.1 atala).
- Erantsita doan 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzearen ibilgetuari dagokion “Erabilera orokorrerako emandako azpiegitura, ondasunak eta ondarea” epigrafean, itxiera-data horretan guztiz amaituta dauden eta erabilera orokorrerako eman ez diren obra-proiektuak biltzen dira (3.1 atala).
- Guk dakigunez ez da egin ez esleitutako edo lagatako ondasunen ez esleipenean edo lagapenean jasotako ondasunen inbentariarik; beraz, ezin dugu iritzi bat izan horiek 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzean duten islaren arrazoizkotasunari buruz (3.3 atala).
- 2014ko ekitaldiaren itxieran, hainbat prozedura judizial ebazteko daude. Horietan, udalari kalte-ordain handiak eskatzen zaizkio. Erreklamazio horiek estaltzeko, udalak ez du inolako hornidurarik zuzkitu 2014ko abenduaren 31ko erantsitako egoera-balantzean. Azterketa honen datan prozedura horiek nola amaituko diren ez dakigunez eta beharrezkoa izango den horniduraren zenbatekoa kuantifikatzeko oinarri objektiborik ez dugunez, ezin dugu zehaztu adierazitako prozeduren azken emaitzak erantsita doazen egoera-balantzearen eta galdu-irabazien kontuen gainean izan dezaketen eragina.

- Gure lanean zehar, Kontabilitate Printzipio Publikoen arabera, 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzean eta egun horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontuan (biak erantsita daude) bildu beharko liritekeen doikuntza eta birsailkapen jakin batzuk agerian geratu dira. Ondoren adierazten da doikuntza eta birsailkapen horien izaera eta horiek erantsitako egoera-balantzearen hainbat ataletan duten eragina:

- Eurotan -

Kontzeptua	Atala	Aktiboa		Pasiboa	Pasiboa	
		Ibilgetua	Zordunak		Funts propioak	
					Aurr. ekitaldiko emaitzak	2014 emaitzak
- 14.12.31n erregistratu gabe dagoen ur- eta estolderia-eroldaren 2014ko 4. hiruhilekoari dagokion sarreraren erregistroa		-	814.962		-	814.962
- Ur- eta estolderia-eroldaren 2013ko 4. hiruhilekoari dagokion sarreraren erregistroa, 2014ko aurrekontuan		-	-	-	723.141	(723.141)
- 14.12.31n epemuga bete ez duten sortutako interesak		-	-	19.079	-	(19.079)
- 2014ko aurrekontuaren gastu gisa erregistratu dira 13.12.31n sortutako interesak		-	-	-	(14.130)	14.130
- Balore-zorroaren balio-galeraren ondoriozko zenbatekoagatik hornidura-eskasia 14.12.31n	3.2	(702.357)	-	-	(702.357)	-
- Eusko Jaurlaritzak 2004an emandako Sektore publikoaren maileguaren saldoa zuzendu da; 2014ko aurrekontuan itzuli da	3.4	-	-	47.271	(47.271)	-
- Eusko Jaurlaritzak 2007an emandako Sektore publikoaren sektorearen maileguaren saldoa erregistratu da	3.4	-	-	51.243	(51.243)	-
- Interesengatiko gastu gisa kontabilizatutako 2014ko amortizazioengatiko maileguen saldoa zuzendu da	3.4	-	-	(63.939)	-	63.939
GUZTIRA		(702.357)	814.962	53.654	(91.860)	150.811

Betean Auditoría, SLP

José Ignacio Miguel Salvador

2015eko ekainaren 22a

ERREENTERIAKO UDALA

***2014KO ABENDUAREN 31KO EGOERA BALANTZEA ETA
DATA HORRETAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI
DAGOKION GALDU IRABAZIEN KONTUA (IKUSKATU
GABEA)***

1. AZTERTUTAKO ONDARE KONTUAK

BALANTZEA (IKUSKATU GABEA)

-Eurotan -

AKTIBOA	31.12.14	31.12.13	PASIBOA	31.12.14	31.12.13
A) IBILGETUA	168.488.547,70	163.708.587,62	A) FUNTS PROPIOAK	160.211.470,45	152.407.345,64
I) Erabilera orokorrerako emandako azpiegitura, ondasunak eta ondarea	25.033.445,16	24.128.619,65	<i>Ondarea</i>	70.213.738,00	70.213.738,00
<i>Erabilera orokorrera zuzendutako lur eta ondasun naturalak</i>	3.588.702,30	3.388.702,30	<i>Lagataka ondarea</i>	(4.080.075,62)	(4.080.075,62)
<i>Erabilera orokorrera zuzendutako azpiegitura eta ondasunak</i>	21.408.843,74	20.739.917,35	<i>Erabilera orokorrerako emandako ondarea</i>	(38.231.704,42)	(38.231.704,42)
<i>Erabilera orokorrera zuzendutako bestelako ondarea</i>	35.899,12	-	<i>Itxitako ekitaldietako emaitza positiboak</i>	124.505.387,68	119.083.644,17
II) Ez-materiala	4.499.172,28	3.950.971,90	<i>Galdu-irabaziak (M/G)</i>	7.804.124,81	5.421.743,51
<i>Ikerketa eta garapen gastuak</i>	45.401,74	-			
<i>Bestelako ibilgetu ez-materiala</i>	4.453.770,54	3.950.971,90			
<i>Amortizazioak</i>	-	-			
III) Materiala	122.735.831,92	119.265.849,71	B) HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO SARRERAK	87.415,25	87.415,25
<i>Lur eta ondasun naturalak</i>	20.401.930,15	20.401.930,15			
<i>Eraikuntzak</i>	109.921.981,61	106.975.457,41	<i>Banatu beharreko bestelako sarrerak</i>	87.415,25	87.415,25
<i>Instalazio teknikoak eta makineria</i>	3.778.566,51	3.604.110,86			
<i>Beste instalazioak, tresneria eta altzariak</i>	634.360,73	601.898,83	D) EPE LUZERAKO HARTZEKODUNAK	10.258.305,18	11.866.366,89
<i>Informatika-prozesuetarako ekipoa, garraio-elementuak eta bestelako eta bestelako ibilgetu materiala</i>	6.717.646,51	6.401.106,05	II) Epe luzerako zorrak	9.780.622,58	11.512.512,08
<i>Amortizazioak</i>	(18.718.653,59)	(18.718.653,59)	<i>Tokiko sektore publikoko erakundeeikiko zorrak</i>	981,84	53.418,97
IV) Udalaren lurzoru-ondarea	14.859.782,22	14.859.782,22	<i>Bestelako zorrak</i>	9.779.640,74	11.459.093,11
<i>Eraikuntzak</i>	6.456.070,74	6.456.070,74			
<i>Beste batzuk</i>	8.403.711,48	8.403.711,48	III) Epe luzerako bestelako hartzekodunak	477.682,60	353.854,81
V) Finantzariora	1.360.316,12	1.503.364,14	<i>Jasotako fidantzak eta gordailuak</i>	477.682,60	353.854,81
<i>Partaidetzak sektore publikoan</i>	1.063.813,82	1.063.813,82			
<i>Epe luzerako finantza-inbertsioak</i>	296.502,30	456.502,30	E) EPE LABURRERAKO HARTZEKODUNAK	7.542.800,53	7.650.805,14
<i>Langileentzako epe luzerako kredituak</i>	-	(16.951,98)	I) Hartzekodunak	3.703.514,87	3.789.144,87
D) ZORDUNAK	5.242.791,05	3.365.026,99	<i>Aribideko ekitaldian aitortutako obligazioen ondoriozko hartzekodunak</i>	3.557.088,23	3.041.604,79
I) Zordunak	5.242.791,05	3.365.026,99	<i>Aribideko ekitaldian aitortutako obligazioen ondoriozko hartzekodunak</i>	-	-
<i>Aurtengo ekitaldian aitortutako eskubideen ondoriozko zordunak</i>	5.200.387,19	3.377.206,12	<i>Sarreraren itzuleraren ondoriozko hartzekodunak</i>	111.628,63	413.974,89
<i>Ekitaldi itxietan aitortutako eskubideen ondoriozko zordunak</i>	2.049.643,03	1.819.888,61	<i>BEZaren ondoriozko hartzekodunak</i>	34.798,01	31.218,93
<i>Bestelako zordunak</i>	87.450,00	81.295,64	<i>Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak</i>	-	302.346,26
<i>Erakunde publiko zordunak</i>	19.949,92	19.949,92			
<i>Hornidurak</i>	(2.114.639,09)	(1.933.313,30)	II) Erakunde publiko hartzekodunak	700.537,86	624.282,53
E) FINANTZA KONTUAK	4.368.652,66	4.938.318,31			
I) Aldi baterako finantza-inbertsioak	2.493.845,02	2.125.255,51	VI) Zorrak erakunde publikoekin kreditu-eragiketen ondorioz	-	32.421,94
<i>Langileentzako kredituak</i>	(6.154,98)	-			
<i>Emandako kredituak</i>	2.500.000,00	2.125.255,51	VII) Bestelako zorrak	3.138.747,80	3.204.955,80
II) Bankukoak ez diren beste zenbait kontu	613,15	(2.040,99)	<i>Bestelako zorrak</i>	2.577.350,00	2.420.000,00
<i>Aplikatzeko dauden ordainketak</i>	613,15	(2.040,99)	<i>Jasotako fidantzak eta gordailuak</i>	561.397,80	784.955,80
III) Diruzaintza	1.874.194,49	2.815.103,79			
AKTIBOA GUZTIRA	178.099.991,41	172.011.932,92	PASIBOA GUZTIRA	178.099.991,41	172.011.932,92

1.2 GALDU IRABAZIEN KONTUA (IKUSKATU GABEA)

-Eurotan -

ZORRA	31.12.14	31.12.13	HARTZEKOA	31.12.14	31.12.13
A) GASTUAK			B) SARRERAK		
Langile-gastuak	15.222.102,77	14.251.624,23	Negozio-zifraren zenbateko garbia	5.671.846,38	6.019.684,75
<i>a) Soldatak eta alokairuak</i>	11.947.545,76	11.151.646,73	<i>a) Salmenta garbiak</i>	9.724,16	7.071,27
<i>b) Gizarte-kargak</i>	3.274.557,01	3.099.977,50	<i>b) Zerbitzugintzak</i>	5.662.122,22	6.012.613,48
Trafiko-horniduren aldakuntza	181.325,79	220.328,30	Zergak	9.929.782,04	10.093.601,95
<i>b) Horniduren aldakuntza eta kreditu kobraezinen galerak</i>	181.325,79	220.328,30	<i>a) Zuzenekoak</i>	9.544.593,80	9.769.777,87
Beste ustiapen-gastu batzuk	22.791.973,84	22.287.404,67	<i>b) Zeharkakoak</i>	385.188,24	323.824,08
<i>a) Kanpoko zerbitzuak</i>	15.382.084,48	15.231.922,13	Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	27.828.091,92	23.931.791,92
<i>c) Emandako diru-laguntzak eta transferentziak</i>	7.409.889,36	7.055.482,54	Kudeaketa arrunteko bestelako sarrerak	3.243.025,79	2.772.305,83
I. USTIAPEN MOZKINAK	8.477.343,73	6.058.027,25	<i>a) Kudeaketako sarrera osagarriak</i>	3.243.025,79	2.772.305,83
Finantza-gastuak eta gastu parekatuak	206.125,91	242.009,45	I. USTIAPEN GALERAK	-	-
<i>a) Interesen ondoriozkoak</i>	206.125,91	242.009,45	Kapital-partaidetzako sarrerak	6.406,95	6.839,11
II. FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK	-	-	Balore negoziagarrien eta kredituen sarrerak	15.188,13	19.323,58
IV. OHIKO JARDUEREN MOZKINAK	8.292.812,90	5.842.180,49	<i>a) Interesen ondoriozkoak</i>	15.188,13	19.323,58
Aurreko ekitaldietako gastuak eta galerak	328.089,86	423.183,21	II- FINANTZA EMAITZA NEGATIBOAK	184.530,83	215.846,76
V. AURREKO EKITALDIETAKO MOZKINAK	-	-	IV. OHIKO JARDUEREN GALERAK	-	-
Ohiz kanpoko galerak	160.000,00	-	Aurreko ekitaldietako sarrerak eta mozkinak	-	2.904,81
VI. APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK	-	-	V. AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK	328.089,86	420.278,40
EKITALDIAREN EMAITZA (MOZKINA)	7.804.124,81	5.421.743,51	Aparteko mozkinak	(598,23)	(158,58)
			VI. OHIZ KANPOKO EMAITZA NEGATIBOAK	160.598,23	158,58
			EKITALDIKO EMAITZA (GALERA)	-	-

ERREENTERIAKO UDALA

***IKUSKATU GABEKO 2014KO ABENDUAREN 31KO EGOERA
BALANTZEAREN ETA DATA HORRETAN AMAITUTAKO
EKITALDIKO GALDU IRABAZIEN KONTUEN AZALPEN
ATALAK ETA BESTELAKO OHARRAK***

2. AURKEZPEN OINARRIAK

2.1 SARRERA

Errenteria Donostialdean dago, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, eta zuzenbidezko 39.230 biztanle dauzka 2014ko urtarrilaren 1eko datuen arabera

2014ko ekitaldiari dagokion ERRENTERIAKO UDALAREN kontu orokorra osatzen dute Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62. artikulua Udalari berari, eta berezko nortasun juridikoa duten “ADINDUEN EGOITZAREN UDAL PATRONATUA”, “ERRENTERIA MUSIKAL PATRONATUA” eta “UDAL KIROL PATRONATUA” erakunde autonomoei eta udalaren mendeko “ERRENTERIA GARATUZ UDAL SOZIJETATEA - ERRENTERIA GARATUZ SOCIEDAD MUNICIPAL, SA” sozietate publikoari eskatzen dizkien aurrekontuko eta ondareko kontuek.

Erantsitako ondare-kontuak (1. atala), 2014ko ekitaldiari dagokion Errenteriako Udalaren kontu orokorra osatzen dutenak, udalaren kontabilitate-erregistroak abiapuntutzat hartuta prestatu dira.

Txosten honen datan, Udalbatzak onartu gabe zuen adierazitako 2014ko kontu orokorra. Hala ere, ez dirudi onarpenaren ondorioz aldaketak izango direnik.

2.2 APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

2014ko ekitaldian, Udalak Gipuzkoako Toki Sektore Publikoari buruzko Araudia hartu du oinarri:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena.
- Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen lehen, zortzigarren eta hemeretzigarren xedapen gehigarriak.
- 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5koa, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena.
- 1098/2001 Legea, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuari buruzkoa.
- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.

- 2/2004 Errege Dekretu Legegilea, martxoaren 5koa, Toki Ogasunei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 100/2004 Foru Dekretua, abenduaren 21koa, Gipuzkoako toki-entitateen aurrekontu-egitura eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartzen dituen.
- 3/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, 5/2001 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Orokorraren osagarria, erreformatzen duena.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, 18/2001 Lege Orokorra, abenduaren 12koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzkoa, garatzeko araudia onartzen duena, lege hori toki-erakundeei aplikatzearen.
- 141/2007 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, toki-erakundeen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorreko agindu jakin batzuen aldaketa eta kontabilitate-jarraibidea onartzen dituen.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloetan finantza-tutoretzako eskuduntza garatzen duena.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.
- 2013ko azaroaren 19ko Akordioa, Gipuzkoa (2014ko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko Gipuzkoako toki-erakundeek bete beharreko jarraibidea).
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoa Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.

3 AZALPEN ATALAK

3.1- FINANTZAZ BESTELAKO IBILGETUA

Balantzearen epigrafeka sailkatuta, hona hemen finantzaz bestelako ibilgetua osatzen duten saldoen laburpena:

-Eurotan -

Finantzaz bestelako ibilgetua	31.12.14	31.12.13
Erabilera orokorrerako emandako azpiegitura, ondasunak eta ondarea	25.033.445,16	24.128.619,65
Ez-materiala, garbia	4.499.172,28	3.950.971,90
Materiala, garbia	122.735.831,92	119.265.849,71
Udalaren lurzoru-ondarea	14.859.782,22	14.859.782,22
Finantzaz bestelako ibilgetua guztira	167.128.231,58	162.205.223,48

1993. urtean, orduan eskuratuta edo lehenago eraikita zegoen ibilgetua egoera-balantzeari eransteko xedez, udal-ibilgetuaren inbentarioa eta balorazioa egiteko enkargua eman zuen Udalak, nahiz eta balorazio-arauek ondasun horiek baloratu ahal izateko eskuratzeko prezioa edo produkzio-kostua erabiltzea nahitaezkoa dela adierazten duten. Lan horren emaitzako amortizazioak kendu osteko udal-inbentarioa, 1993ko urtarrilaren 1ean, 20.140 mila euroko zenbatekora iristen zen. Udalbatzak ez zuen inbentario hura onartu.

2000ko ekitaldian, inbentario hura eguneratzeari ekin zitzaion. 2002ko maiatzaren 28ko udalbatzak, adierazitako inbentarioa 2001eko abenduaren 31ra eguneratzea onartzeko erabakia hartu zuen. Hala ere, bertako ondasun gehienak ez zeuden baloratuta. Ildo horretan, 2003ko ekitaldian, ondasun horiek baloratzeko kontratatutako enpresak bere lanak amaitu zituen. Balorazio horren ondoriozkoa den amortizazioak kendu osteko zenbatekoa 124.996 mila eurokoa zen 2002ko abenduaren 31n. Zuzenketa hori udalbatzaren erabaki bidez onartu zen 2003ko apirilaren 25ean.

Gainera, 2002ko maiatzaren 28an onartutako inbentarioak —2003ko abenduaren 31n egin zen horri buruzko balorazioa ez zen udalbatza bidez onartu— ez ditu barnean hartu udal-eraikinen edukia osatzen duten ondasunak.

Alabaina, ezin izan ditugu eskuratu 2014ko abenduaren 31ko ondasunen udal-inbentarioko balioak; dena den, Inbentarioak eta kontabilitateak erregistratutako udal-ibilgetuaren balioak eguneratuta eta bateratuta mantentzea bermatuko duten Kontu-hartzaitza eta Ondare Sailen arteko prozedura koordinaturik ez dagoenez, egoera-

balantzean jasotako saldoen eta Ondasunen Udal Inbentariotik eskuratutako balioen arteko aurreko ekitalditan antzemandako diferentzia azpimarragarriek hala jarraituko lukete analisi-data honetan.

Zehazki, Ondare Sailak egiten dituen inbentario-eguneraketa ohikoenek udalaren lurzoru-ondareari egiten zaizkion diruz kanpoko ekarpenekin dute zerikusia. Horren ondorioz, ohikoa da aurrekontu-mugimendurik ez biltzea inbentario horretan. Era berean, badira inbentarioan baloratu gabe dauden elementuak.

Esate baterako, ikusi dugunez, aurreko ekitaldietan udal-inbentarioak ez zituen barnean hartu udal-titulartasuneko eraikinetako elementuak, hala nola tresneria, altzariak, makinak eta informazio-prozesuetarako ekipoak, ezta udalaren ur-sarea ere.

Aldiz, egoera-balantzeko “Ibilgetua” kapituluko epigrafeen gehikuntza edo murrizketa, funtsean, dagozkion aurrekontu-sailetan aitortutako obligazioen eta eskubideen ondoriozkoa da.

Era berean, arlo horretan kontabilizatutako 2014ko ekitaldiko mugimenduen berrikuspenean egindako lanaren ondorioz, honako gertakari hauek antzeman ditugu (ikus *Kontu-ikuskapeneko txostena*):

- Erantsitako balantzeko “Erabilera orokorrerako emandako azpiegitura, ondasunak eta ondarea” kontuetan, erabat amaituta dauden eta, ondorioz, erabilera orokorrerako eman behar ziren obra-proiektuak daude.

Dena den, eman diguten informazioa ez da behar adinakoa izan aipatutako beste azpiegitura guztien zenbatekoa zein den eta 2014ko abenduaren 31n horietako zein erretiratu beharko lirartekeen jakiteko; epigrafe horren saldoa murriztearren eta, zenbateko berarekin, “Erabilera orokorrerako emandako ondarea” epigrafea gehitzearren.

- Erantsitako egoerek ez dute biltzen 2014ko eta aurreko ekitaldietako amortizazioari dagokion zuzkidurari lotutako zenbatekorik, hasierako inbentarioan bildutakoa izan ezik.
- 2014ko ekitaldiaren itxieran, ez dakigu zer zenbateko egoki beharko zitzaiokeen “Udalaren lurzoru-ondarea” epigrafeari aurreko ekitaldietan gauzatu eta epigrafe honetan birsailkatzeke dauden era horretako ondasunei dagokienez.

- Azkenik, 2014ko ekitaldi honetan, ikusi dugu zenbait kasutan “Inbertsio errealak” kapituluko aurrekontu-kontzeptuak eta ibilgetu materialeko kontuak ez datozela bat. Bat ez etortze horien artean, duten garrantziagatik honako hauek azpimarratzen dira:
 - 229.486 eurogatik oinezkoekin elkarbizitza lortzeko Biteri Kaleko zoladura-obregatik gehitzeak “Bestelako ibilgetu ez-materiala” atalean sailkatzea.
 - 157.767 eurogatik kaleko argiteria-sare berria jartzeko inbertsioak, “Makineria” atalean sailkatzea ondare-kontabilitatean.
 - 37.315 eurogatik seinaleztapen publikoko lanetan inbertsioak “Beste eraikuntza batzuk” atalean sailkatzea ondare-kontabilitatean.

Arloko kontuetan udal-ibilgetua behar bezala erregistratzearen garrantzia, egoera-balantzearen “Bertako funtsak” kapituluaren guztizkoari dagokionez, bertan erregistratutako saldoen eragin adierazgarrian oinarritzen da. Aipatutako kapituluaren saldoa, 2014ko abenduaren 31n, 160.211.470 eurokoa da eta zenbateko hori xehatutako ibilgetu ez-finantzarioarena baino txikiagoa da.

2014ko abenduaren 31n indarrean zeuden aseguru-polizek 100 milioi euroko estaldura aintzat hartzen dute, gutxi gorabehera, eraikin eta instalazioetako sute-arriskurako (edukitzailea gehi edukia).

Aurreko paragrafoen arabera, *honako hau gomendatzen dugu:*

⇒ *2014ko ekitaldia ixtean ondasunen udal-inbentarioa eguneratzea.*

⇒ *Ondasunen udal-inbentarioan ondasun eta eskubide guztiak sartzeari, horien izaera edo eskuratzeko modua edozein izanik ere.*

⇒ *Berdinkatzea egoera-balantzeko “Ibilgetua” kapituluko kontabilitate-kontuei dagozkien saldoekin osatutako eta eguneratutako udal-inbentarioaren emaitzazko zenbatekoak.*

⇒ *Erabilera orokorrerako entregak kontabilizatzeko prozedura formalizatzea:*

- ✓ *Ekitaldiaren amaieran, dagokion sail teknikoari edo idazkaritzari eskatuko zaio ekitaldian egindako azpiegituren osotasunaren edo aurreko ekitaldietako azpiegituren osotasunaren (ixten den ekitaldian eman direnak) ziurtagiria.*

✓ *Kontabilitateak emandako informazioarekin, erabilera orokorrerako entrega hori baloratzea, eta kontabilitate-idazpena egitea “109. Erabilera orokorrerako entregatutako ondarea” ondare-kontua kontrapartida gisa erabiliz.*

⇒ *Ibilgetuko ondasunen salmentan lortutako emaitza kontabilizatzea, sisteman zuzeneko idazpen hau eginda (kontabilitate-eragiketak):*

✓ *Saldutako ondasunaren baja kontabilitatean erregistratzeko: kostuko eta metatutako amortizazioko kontuak ordaintzea eta kargatzea, ondasun horri erregistratu denean ezarri zaizkion zenbatekoetz.*

✓ *Salmentako balioaren eta kontabilitate-balio garbiaren arteko diferentziarako, ondare-gastu edo -sarrera bat erregistratu beharko da:*

- *Ondare-gastua: besterendutako ondasunaren salmenta-balioa kontabilitate-balio garbia baino txikiagoa da. Diferentzia hori jasoko duen gastuen kontua honako hau izango da: 671 “Ibilgetu materialaren ondoriozko galerak”.*
- *Ondare-sarrera: besterendutako ondasunaren salmenta-balioa kontabilitate-balio garbia baino handiagoa da. Diferentzia hori jasoko duen gastuen kontua honako hau izango da: 771 “Ibilgetu materialaren ondoriozko mozkinak”.*

3.2 FINANTZA IBILGETUA

Udalak hainbat merkataritza-sozietatetan dituen partaidetzei esleitutako eta egoera-balantzaren epigrafe honetan kontabilizatutako balioen laburpena honako hau da:

Partaidetzak sektore publikoan	Parte-hartzea	31.12.14	31.12.13	KBG	Hornidura
Errenteriako Zentral Hidroelektrikoa, SA	50%	117.877,00	117.877,00	217.877,00	-
Errenteria Garatuz, S.A. (Txirrita Maleo, SA lehen)	100%	1.063.813,82	1.063.813,82	495.657,26	568.156,74
Murias Center 4, SA (lehen Errenteria Garatuz, SA)	10%	163.600,00	163.600,00	29.399,80	134.200,20
Oarsoaldea, SA	25%	15.025,30	15.025,30	904.283,80	-
Sektore publikoko partaidetzak guztira		1.360.316,12	1.360.316,12	1.647.217,86	702.356,94

“Errenteriako Zentral Hidroelektrikoa, SA” sozietatea Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) batera sortu zen.

Udalak (% 50) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (% 50) “Txirrita-Maleo SA” sozietatea sortu zuten 1992an, Errenteriako Txirrita-Maleo izeneko industrialdeko industria-lurzorua kudeatzeko xedez.

2001eko ekitaldian, Aldundiak bere akzioak Udalari saldu zizkion, 2001eko urriaren 19an eskrituratutako egintza bidez, 53.562 euroko prezioan. Zenbateko hori ekitaldi horretan ordaindu zuen Udalak eta harrezkero adierazitako sozietatearen titular bakarra da.

2007ko urtarrilaren 11n sozietatearen administrazio-kontseiluak hartutako erabakiaren eskritura publikoa egin zen; haren bidez, sozietatearen izena aldatu zen eta harrezkero “Errenteria Garatuz Udal Sozietatea, SA” da.

Sozietate horren 2010eko martxoaren 26ko batzar nagusian sozietatearen kapitala 860.000 eurora arte gehitzea erabaki zen. Udalak, 2010eko apirilaren 26ko osoko bilkuran, sozietatearen akzio guztiak zenbateko horrekin harpidetzea erabaki zuen eta kopuru hori diru-ekarpen bidez ordaindu zuen

2014ko abenduaren 18ko Udal Osoko Bilkuran aipatutako sozietateari egindako kudeaketa-aginduak Udalak bere gain hartzea adostu da. Hala ere, Sozietateak aurrera jarraituko du, bere estatutuetan adierazten den xedearekin, baina jarduerarik gabe.

1993an, Pasaia, Oiartzun, Lezo eta Errenteriako udalek, zati berdinetan, “Oarsoaldea, SA” merkataritza-sozietatea eratu zuten. Sozietate honen helburu soziala da eskualdearen garapen sozioekonomikora bideratutako zereginak eta jarduketak burutzea, eta bertako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzea.

Bestalde, 1999an, udalak “Errenteria Garatuz Udal Sozietatea, SA” sozietatea sortu zuen, kapital soziala osatzen zuen 60.101 euroko zenbatekoa ordainduta. Gaur egun, “Murias Center 4, SA” izena du sozietateak.

Sozietate horren helburua da Errenteriaren garapen ekonomiko integralerako zuzenean edo zeharka lagungarriak diren edo izan daitezkeen jarduera ekonomiko edo zerbitzu publiko guztiak sustatzea eta garatzea.

Sozietate horren 2004ko otsailaren 18ko batzar nagusian sozietatearen kapitala 1.575.850 eurora arte gehitzea erabaki zen. Udalak, 2004ko martxoaren 26ko osoko bilkuran, sozietatearen akzioak *104.350 euroko balioaz harpidetzea erabaki zuen, eta horren truke hainbat azalera- eta gozamen-eskubide eman zituen 50 urterako.*

Horren ondorioz, udalak sozietate horretako partaidetza-gehikuntza erregistratu zuen 2005ean, eta lagatako eskubideengatik “Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak” epigrafea gehitu zuen. Epigrafe horren saldoa modu uniformearen eraman beharko litzateke ekitaldiaren emaitzara adierazitako aldi horretan; alabaina, 2014ko ekitaldian, ez da zenbatekorik eraman emaitza horretara.

Azkenik, balio negoziagarrietarako Gipuzkoako toki-erakundeen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean barne hartutako balorazio-arauei jarraituz, horiek eroste-prezioaren arabera baloratu behar dira, eta bidezko hornidura zuzkitu behar da, betiere eroste-prezioaren eta kontabilizatutako finantza-ibilgetuari zentzuzko balorazio-irizpideak aplikatzearen emaitzazko zenbatekoaren arteko diferentziaren arabera. Horren haritik, parte-hartzeen balioespina liburutuan duen balioa baino 702.357 euro txikiagoa da, baina Udalak ez du balio-galtzearen bidezko dagokion hornikuntzarik egin (ikus *Azterketa-txostena*).

3.3 FUNTS PROPIOAK

Egoera-balantzearen kapitulu hau osatzen duten kontuen saldoen xehetasuna honako hau da:

-Eurotan -		
Funts propioak	31.12.14	31.12.13
Ondarea	70.213.738,00	70.213.738,00
Lagatako ondarea	(4.080.075,62)	(4.080.075,62)
Erabilera orokorrerako emandako ondarea	(38.231.704,42)	(38.231.704,42)
Itxitako ekitaldietako emaitza positiboak	124.505.387,68	119.083.644,17
Galdu-irabaziak	7.804.124,81	5.421.743,51

-Eurotan -

Funts propioak	31.12.14	31.12.13
Funts propioak guztira	160.211.470,45	152.407.345,64

Egoera-balantzean, 2000ko ekitaldian inbentarioa egin baino lehen erabilera orokorrerako ustez emandako ondasunen osotasuna jasotzen da, zero balioaz.

Bestalde, atxikita hartutako ondasunen edo ustiatzeko nahiz erabiltzeko lagata hartutakoen balioa saldo hartzekodunarekin erregistratu behar da egoera-balantzearen pasiboko “Funts propioak” kapituluaren “Atxikitako ondarea” eta “Lagatako ondarea” epigrafeetan, hurrenez hurren. Guk dakigunez, ez da atxikita edo lagata hartutako ondasunen inolako inbentariarik egin. Egoera hori zuzentzeak eragina izango luke 2014ko abenduaren 31ra arteko egoera-balantzean. Izan ere, inbentario horren emaitzazko balioan gehituko lirateke “Esleipeneko ondarea” eta “Lagapeneko ondarea” epigrafeen saldoak, eta zenbateko berean “Ibilgetua” kapituluaren saldoa gutxituko litzateke, edo aitzitik, “Ondarea” epigrafearena gehituko litzateke.

Bestalde, atxikita hartutako ondasunen edo ustiatzeko nahiz erabiltzeko lagata hartutakoen balioa saldo hartzekodunarekin erregistratu behar da egoera-balantzearen pasiboko “Funts propioak” kapituluaren “Atxikitako ondarea” eta “Lagatako ondarea” epigrafeetan, hurrenez hurren. Guk dakigunez, ez da atxikita edo lagata hartutako ondasunen inolako inbentariarik egin. Egoera hori zuzentzeak eragina izango luke 2014ko abenduaren 31ra arteko egoera-balantzean. Izan ere, inbentario horren emaitzazko balioan gehituko lirateke “Esleipeneko ondarea” eta “Lagapeneko ondarea” epigrafeen saldoak, eta zenbateko berean “Ibilgetua” kapituluaren saldoa gehituko litzateke (Ikus *Azterketa-txostena*).

Aurreko paragrafoen arabera, honako hau gomendatzen dugu:

⇒ Esleitutako edo lagatako ondasunen inbentarioa eta esleipenean edo lagapenean jasotako inbentarioa egitea, eta aipatutako inbentarioan esleitutako balorazioak kontabilitatean barne hartzea.

3.4 JASOTAKO MAILEGUAK

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak laguntza batzuk eman zituen, mailegu gisa, epe luzera eta interesik gabe: 2004an 47.271 euro eta 2007an 51.243, GS3-Gecotor-Sabatenea Eraikinean industria-aurriak eraisteko eta Udalak kapitalaren diru-laguntza gisa (sarrerak) erregistratu zituen zegokion aurrekontuan.

Hitzartutako baldintzen arabera, zor den kantitatea gehienez ere sei hilabeteko epean itzuli beharko litzateke, urbanizazio-proiektua onartzen denetik hasita. Baldin eta eraikuntzarik eta urbanizaziorik egingo ez balitz, Hitzarmen sinatzen denetik gehienez ere hamar eguneko epean egin beharko litzateke itzultzea (2004-12-09 eta 2007-12-28).

2014ko ekitaldia ixtean, Udalak ez du aipatutako laguntzekin erlacionatutako gasturik egin, beraz, aipatutako baldintzetan adierazitakoa bete, utzitako kantitateen lehenengoa itzuli du, 47.271 euro, eta sektore publikoko maileguen amortizazio gisa erregistratu du.

Zor den beste kantitatea, 51.243 eurokoa, 2017 ekitaldian itzuliko da.

Hala ere, aipatutako maileguen itzuli beharreko saldoa ez zegoen erregistratuta “Tokiko sektore publikoko erakundeekiko zorrak” epigrafean. Hortaz, 2014ko abenduaren 31n epigrafe horren kopurua 98.514 euro gehiago izan beharko litzateke (Ikus *Azterketa-txostena*).

Bestalde, 2014an maileguen amortizazio gisa erregistratu dira 63.939 eurogatik ordaindutako interesak, eta horrek erantsitako balantzeko pasiboaren “Bestelako zorrak” kontuaren saldoaren okerreko murrizketa eragin du. Hortaz, kontu interesak aipatutako kopuruaren azpitik baloratuta daude 2014ko abenduaren 31n (Ikus *Azterketa-txostena*).

ERANSKINA:

ONDARE KONTUEN (IKUSKATU GABEAK) ANALISIAN APLIKATUTAKO PROZEDURAK

2014ko abenduaren 31ra arteko balantzeari eta egun horretan amaitutako urteko ekitaldiko galdu-irabazien kontuari buruzko azterketan, Erakundeko langileei egindako galderak eta erabilitako prozedura analitikoak, funtsean, hauek dira:

- Erakundeak aplikatutako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei buruzko galderak.
- Erakundeak transakzioak erregistratu, sailkatu eta laburtzeko erabilitako prozedurei buruzko galderak.
- Apartekoak diruditen zerrenda eta kontu-sail indibidualak identifikatzeko diseinatutako prozedura analitikoak.
- Egoera-balantzearen eta galdu-irabazien kontuaren irakurketa, eskuragarri dagoen informazioan oinarrituta Kontabilitate Printzipio Publikoei jarraituz prestatu diren ikustearren.